# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-3928

148/2000 DEKRETUA, uztailaren 28koa, aldez aurretiko fiskalizazioa behar duten espedienteei dagozkien gastu mota bakoitzeko zenbatekoak finkatzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 22.1 a) 3.a) artikuluak zera ezartzen du, gastu mota bakoitzerako arauz zehazten diren zenbatekoak gainditzen dituzten espedienteek aldez aurretiko fiskalizazioa behar dutela. Ondorioz, urtarrilaren 24ko 66/1995 Dekretua onartu zen eta Dekretu horrek arautu du, orain arte, gai hori.

Hala ere, alde batetik zenbateko horiek eguneratu behar dira eta, bestetik, Dekretua indarrean egon den bitartean izandako esperientziaren ondorioz, zenbait aldaketa egin behar dira. Beraz, komenigarria da arau berri bat onartzea, beti ere, indargabetzen denaren eskema errespetatuta, oro har.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2000ko uztailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Xedea eta eremua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 22.1.a).3.) artikuluan aipatutako gastu mota bakoitzeko zenbatekoa finkatzea da dekretu honen xedea, hortik gorako zenbatekoetan derrigorrezkoa baita aldez aurretiko fiskalizazioa egitea.

2.– Aurreko lerroaldean aipatutako ondorioetarako, jarraian zehazten diren gastuak ez daude Dekretu honetan xedatutakoaren menpe eta, beraz, horietan aldez aurretiko fiskalizazioa egin beharko da beti, zenbatekoa dena dela:

a) 22.1.a) artikuluko 1. eta 2. zenbakietan adierazitako gastuak.

b) Zenbateko zehaztugabea duten gastuak eta hiru aurrekontu-ekitaldi jarraitarako edo gehiagorako sarrera eta gastu konpromisoa daukatenak.

3.– Era beran, Dekretu honetan xedatutakotik kanpo geldituko dira aipatutako 22.1.a) artikuluaren 3.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-3928

DECRETO 148/2000, de 28 de julio, por el que se fijan los importes unitarios por tipo de gasto correspondientes a expedientes sujetos a fiscalización previa.

El artículo 22.1 a) 3º) de la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece la sujeción a la fiscalización previa de los expedientes que superan los importes unitarios por tipo de gasto que se determinen reglamentariamente. En uso de dicha remisión, se aprobó el Decreto 66/1995, de 24 de enero, que hasta ahora regulaba la materia.

La necesidad de actualizar las cuantías y de incorporar determinadas modificaciones aconsejadas por la experiencia acumulada durante la vigencia del Decreto, aconsejan la aprobación de una nueva norma que, no obstante, respete, en general, el esquema de la que ahora se deroga.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de julio de 2000,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto y ámbito.

1.– El presente Decreto tiene por objeto determinar los importes unitarios por tipo de gasto por encima de los cuales es preceptiva la fiscalización previa a que se alude en el artículo 22.1.a).3º) de la Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– A los efectos del párrafo anterior, no se entenderán sometidos a lo preceptuado en el presente Decreto y, por tanto, estarán siempre, independientemente de su importe, sujetos a fiscalización previa, los siguientes gastos:

a) los incluidos en los números 1º y 2º del señalado artículo 22.1 a).

b) los gastos de cuantía indeterminada y aquellos que supongan compromisos tanto de ingreso como de gasto para tres o más ejercicios presupuestarios consecutivos.

3.– Del mismo modo, no se entenderán sometidos a lo preceptuado en el presente Decreto los gastos a que

zenbakiko azken puntuan adierazitako gastuak ere. Izan ere, horien zenbatekoak edozein izanda ere, aldez aurretiko fiskalizaziotik kanpo geldituko dira, kontratu txikietan 3.2. artikuluan ezarritakoa aplikatzearen kalterik gabe.

4.– Ohiko transferentziak eta kapitalaren transferentziak aldez aurretiko fiskalizazioaren menpe ez daudela ulertu behar da, horien zenbatekoa edozein izanda ere.

*2. artikulua.*– Gastu mota bakoitzeko zenbatekoak.

1.– Aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aldez aurretiko fiskalizazioa jaso beharko dute jarraian aipatzen diren gastu motak, bakoitzak bertan adierazitako zenbatekoak gainditzen baditu:

Obrak kontratatzeko espedienteak, hasierako aurrekontua 250.000 eurotik (41.596.500 PTA) goragokoa bada, eta 100.000 eurotik gorako (16.638.600 PTA) hasierako aurrekontua duen beste edozein edozein administrazio kontratu esleitzeko espedienteak.

Prozedura negoziatuaren bitartez izapidetutako administrazio-kontratuen espedienteak, hasierako aurrekontua dena dela, salbu eta prozedura hori zenbatekoan oinarrituta justifikatzen bada edo ondasun eta zerbitzu homologatuak eskuratzeko delako erabiltzen bada, kasu horietan aurreko idatz-zatian esandakoa beteko baita.

Kontratuen aldaketak, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

– Aldatu den administrazio-kontratuaren esleipen-zenbatekoa 250.000 eurotik (41.596.500 PTA) gorakoa izatea obra-kontratuen kasuan edo 100.000 eurotik (16.638.600 PTA) gorakoa gainontzeko administrazio-kontratuetan.

– Aldaketa kontratuaren esleipen-zenbatekoaren %25etik gorakoa bada, bai gora bai behera, berez edo aurretik egindako beste aldaketa batzuei erantsita.

Kontratu ebazpen eta lagapenak, kontratuaren aurrekontua 250.000 eurotik (41.596.500 PTA) gorakoa bada obra-kontratuen kasuan edo 100.000 eurotik (16.638.600 PTA) gorakoa gainontzeko administrazio-kontratuetan.

Kontratu pribatuak egitea edo berritzea, espedientearen zenbatekoa 25.000 eurotik (4.159.650 PTA) gorakoa bada.

Lehiaketa bidez emandako laguntzak eta dirulaguntzak, prozedura horretan emandako zenbatekoa 300.000 eurotik (49.915.800 PTA) gorakoa bada. Deialdi publikoen bitartez emandako gainontzeko dirulaguntzek bakarrik beharko dute aldez aurreko fiskalizazioa baldin eta, banaka hartuta, 100.000 eurotik (16.638.600 PTA) gorakoak badira.

se alude en el último inciso del número 3 del señalado artículo 22.1 a), los cuales estarán siempre, independientemente de su importe, excluidos de fiscalización previa, sin perjuicio de que a los contratos menores les sea de aplicación, en su caso, lo preceptuado en el artículo 3.2 siguiente.

4.– Las transferencias corrientes y de capital, cualquiera que fuera su importe, se entienden no sometidas a fiscalización previa.

*Artículo 2.*– Importes unitarios por tipo de gasto.

Estarán sujetos a fiscalización previa, de conformidad a lo dispuesto en el artículo anterior, los siguientes tipos de gasto siempre que superen los importes unitarios que, asimismo, se citan:

Expedientes para la contratación de obras cuyo presupuesto inicial sea superior a 250.000 Euros (41.596.500 PTA) y expedientes para la adjudicación de cualquier otro contrato administrativo cuyo presupuesto inicial sea superior a 100.000 Euros (16.638.600 PTA).

Expedientes de contratación administrativa tramitados por el procedimiento negociado, cualquiera que sea la cuantía de su presupuesto inicial, excepto cuando el citado procedimiento se justifique en razón de la cuantía o por tratarse de la adquisición de bienes o servicios homologados, en cuyo caso se estará a lo dispuesto en la letra anterior.

Modificaciones de contratos que cumplan los siguientes requisitos:

– efectuarse sobre un contrato administrativo cuyo importe de adjudicación sea superior a 250.000 (41.596.500 PTA) Euros en el caso de los contratos de obras, o a 100.000 Euros (16.638.600 PTA) en los demás contratos administrativos.

– suponer un porcentaje superior al 25%, en más o en menos, del importe de adjudicación del contrato, bien por sí misma, bien en cómputo conjunto con otras modificaciones anteriores.

Resoluciones y cesiones contractuales cuando el presupuesto del contrato supere los 250.000 Euros (41.596.500 PTA) en el caso de los contratos de obras o 100.000 Euros (16.638.600 PTA) en los demás contratos administrativos.

Celebración o novación de contratos privados cuando el importe del expediente supere los 25.000 Euros (4.159.650 PTA).

Ayudas y subvenciones concedidas mediante el procedimiento de concurso, cuando el importe total a conceder en dicho procedimiento supere los 300.000 Euros (49.915.800 PTA). Las demás subvenciones concedidas mediante convocatoria pública sólo se fiscalizarán previamente cuando su importe, individualmente considerado, supere los 100.000 Euros (16.638.600 PTA).

25.000 eurotik (4.159.650 PTA) gorako edozein kalte-ordain. Epigrafe honen barruan sartzen dira, halaber, arauzko entrega bakarrak eta laguntza sanitario, farmazeutiko eta ortoprotesikoetako gastuak itzultzeko izapidetzen diren espedienteak.

25.000 eurotik (4.159.650 PTA) gorako edozein motatako mailegu edo aurrerakin.

Administrazio-errekurtsoak, ofiziozko berrikusketak egiteko prozedurak edo egintza zibilak zein lan egintzak burutu aurreko erreklamazioak ebazten dituzten egintzak, beti ere, horien objektuak aldez aurreko fiskalizazioa behar badu.

Aurreko epigrafeetan jasota ez dauden gastuak, baldin eta, Dekretu honetako 3.1 artikuluan zehazten den irizpideari jarraituz, 25.000 eurotik (4.159.650 PTA) gorakoak badira.

*3. artikulua.*– Gastu mota bakoitzeko zenbatekoen kalkulua.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako zenbatekoak kalkulatu ahal izateko, bildu egingo dira, ekonomi ekitaldi bati dagokionez, batera konprometi daitezkeen prestazioak, gertakariak, eragiketak edo egintzak. Hartara, bada, ezingo dira zatitu aldez aurretiko fiskalizazioa ekiditeko.

2.– Zenbatekoak banaka hartuta aldez aurretiko fiskalizazioa beharko ez luketen baina aurreko puntuko irizpidea aplikatuz behar duten gastu-konpromiso gehiago onartuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko 14/1994 Legearen 24.4 artikuluan zehazten den txostena aurkeztu beharko da.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Kudeaketa zentralizatuko eraikinetan dauden administrazio-unitateetarako ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko erabiltzen den araubide juridikoaren menpe dauden funtzionamendu-gastuak, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak izapidetuak, Dekretu honetan xedatutakoaren menpe egongo dira aldez aurretiko fiskalizazioari dagokionez, eta horien ordainketa kontu delegatuen bitartez egingo da.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indarrik gabe uzten dira Dekretu honen aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak eta, zehazki, aldez aurretiko fiskalizazioa behar duten espedienteei dagozkien gastu mota bakoitzeko zenbatekoak finkatzen dituen urtarrilaren 24ko 66/1995 Dekretua.

Las indemnizaciones de todo tipo superiores a 25.000 Euros (4.159.650 PTA). Se incluyen en este epígrafe las entregas únicas reglamentarias y los expedientes que se tramitan como reintegros de gastos de asistencia sanitaria, farmacéutica y ortoprotésica.

Los préstamos y anticipos de todo tipo superiores a 25.000 Euros (4.159.650 PTA).

Los actos que resuelvan recursos administrativos, procedimientos de revisión de oficio o reclamaciones previas al ejercicio de las acciones civiles o laborales, siempre que su objeto esté sujeto ordinariamente a la fiscalización previa.

Otros gastos no incluidos en epígrafes anteriores, cuando en seguimiento del criterio transcrito en el artículo 3.1 del presente Decreto superen los 25.000 Euros (4.159.650 PTA).

*Artículo 3.*– Cálculo de los importes unitarios por tipo de gasto.

1.– A los efectos del cálculo de los importes señalados en el artículo anterior, se englobarán, con referencia a un ejercicio económico, todas aquellas prestaciones, hechos, operaciones o actos susceptibles de comprometerse conjuntamente, sin que puedan fraccionarse con el fin de eludir su fiscalización previa.

2.– La asunción de sucesivos compromisos de gasto exentos de fiscalización previa por razón de su cuantía individualmente considerada, pero sujetos a la misma por aplicación del criterio expuesto en el párrafo anterior, dará lugar a la emisión del informe previsto en el artículo 24.4 de la Ley 14/1994, de control económico y contabilidad de la CAE.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Los gastos de funcionamiento sometidos al régimen jurídico propio de la adquisición de bienes y servicios destinados a las unidades administrativas radicadas en edificios de gestión centralizada, tramitados por el Departamento de Hacienda y Administración Pública, se someterán, en cuanto a su sujeción a la fiscalización previa, a lo previsto en el presente Decreto, y el pago de los mismos se hará a través de las correspondientes cuentas delegadas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto, y en particular el Decreto 66/1995, de 24 de enero, por el que se fijan los importes unitarios por tipo de gasto correspondientes a expedientes sujetos a fiscalización previa.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko uztailaren 28an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-3929

157/2000 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Lanerako Prestakuntzarako Babespeko Ikastegiak arautu, eta prestakuntza-egitasmo bat egiteko ikastegi horiek tresneria teknikoz hornitzeko laguntzak ezartzen dituena.

1988an orduko Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, prestakuntza arloan hasi zituen jarduerek eraginda, jendea prestatzeko ikastegi sare bat ezartzea ahalbideratuko lukeen estrategia bat taxutu eta planifikatu zuen, horien bidez, baldintzarik onenetan garatu zedin Lanerako Prestakuntza eta Etengabeko Prestakuntza ekintzen kopuru handi bat, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak egindako planteamenduekin bat etorri beharrekoak. Helburu hori lortzeko, prentsatu zen jadanik Autonomia Erkidegoan prestakuntzarako zegoen egitura indartzea eta sustatzea zela biderik pragmatikoena eta koherenteena; era horretan, oraingo eta geroko baliabideak, bai materialak eta bai giza baliabideak, hobeto aprobetxatzeko, horien ondorioz emaitza eraginkorragoak lortuko zirela uste baitzen.

Babespekotzat jo ziren ikastegientzat tresneria erosteko sustapena eta laguntza ematea pentsatu zen helburu hori lortu ahal izateko. Tresneria horrek teknikoa izan behar zuen soil-soilik eta gainera teknologi aldetik aurreratua, Euskal Autonomia Erkidegoan abanguardiako prestakuntza emateko teknikaren aldetik ondo prestatutako ikastetxeak lortu ahal izateko.

Gaur egun, babespeko ikastegien sare kualifikatu bat dugu Euskal Autonomia Erkidegoan. Sare horretan hainbat prestakuntza-egitasmo egin dira lanbideko hainbat sektoreri buruz nahiz, sortutako sinergiek eraginda, ikastegiei beraiei buruz. Proiektuok ondorio onak izan dituzte eta berretsi egin dute orain arte lortutakoa finkatu beharra, bai eta zabaltzekoa ere. Izan

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

El presente Decreto entrará en vigor en el plazo de un mes desde el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### Zk-3929

DECRETO 157/2000, de 28 de julio, por el que se regulan los Centros Tutelados de Formación Profesional Ocupacional y las ayudas destinadas a su dotación con equipamiento técnico, para el desarrollo de un Proyecto Formativo.

Las actuaciones en materia formativa emprendidas por el entonces Departamento de Trabajo y Seguridad Social en 1988 llevaron a éste a trazar y planificar una estrategia que posibilitara la implantación de una red de centros de formación a través de la cual se desarrollase, en condiciones óptimas, una parte importante de las acciones dirigidas a la formación continua y ocupacional y acordes con los planteamientos elaborados por el Gobierno Vasco. Con tal objetivo se consideró que lo más pragmático y coherente era potenciar y promover la estructura formativa ya existente en la Comunidad Autónoma, obteniendo de esta forma un mayor aprovechamiento de los recursos presentes y futuros, tanto materiales como humanos, previendo, con ello, unos resultados más eficaces.

Para ese fin se pensó en fomentar y apoyar la adquisición de equipamiento a los Centros que, para el desarrollo de sus proyectos formativos, hubieran alcanzado la consideración de Tutelados, equipos que debían ser exclusivamente técnicos y tecnológicamente avanzados, pasando, de esta forma, a contar en la Comunidad Autónoma con Centros formativos técnicamente preparados para impartir una formación de vanguardia.

Actualmente disponemos de una cualificada red de Centros Tutelados extendida por toda la Comunidad Autónoma. La incidencia positiva de los proyectos formativos desarrollados en dicha Red, tanto sobre diversos sectores de actividad profesional, como sobre los propios Centros por las sinergias generadas, confirman la necesidad de consolidar lo ya logrado, o incluso de ex-